

Alexander Lopez Lasa

B maila • 1 saria

Alex Lopez Lasa nauzue, 16 urteko mutil Beasaindarra. Beste urte batez zuen aurrean neure burua aurkezteko zortea izan dut eta egia esan hainbeste gazteren artean nire idazlana aukeratua izateak poztu egin nau berriz. Aurkezpen original bat egiteko asmoarekin jarri naiz idazten, baina inspirazio gutxi gelditzen zait eta betikoa kontatuko dizuet. Nire zaletasuna saskibaloia da.

Bi urte nituenetik La Salle ikastetxean ikasi dut eta bertan rudimena lantzen eta irudikatutakoa idazteko ahalmena irakatsi didate. Aurtengoa azkena izango da La Sallen eta beraz, bertako irakasleei nire saria eskaintzen diet. Irakurtzera zoazten istorioa aspaldi gertatu zen istorioa da baina ahaztu behar ez duguna. Eta haxe izan da hain zuzen ere lortu nahi izan dudana helburua.



HEZUR ETA ARIMAK

Gurutz erraldoi batek zerutik zintzilik sostengatzen duen bitartean, ehun altzifrek gizonen eskuek landutako haitzez hornituriko atsedenean tokiari itzala eskaintzen diote eta gure betiereko loa zaintzen.

2019

Burrunba batek gure lasaitasuna erabat puskatu zuen goiz hartan. Zeozer gertatzear zegoenaren susmoa geneukan, izan ere aurreko egunetan bertako biztanle ziren benediktarrek erabat zalapartatsu zebiltzan, joan eta etorrian, inoz ikusitako garbiketa lanetan eta "aieneka". Matutiak errezatzea ere ahaztuta.

Beltzez jantzitako hamar bat gizakume ere agertu ziren goiz hartan. Boteretsuak ziruditen, dirudunak seguruenik izan ere Benediktarrek era guztietako erreberentziaz agurtu zituzten. Gero, kapera erdian urteak zeramatzan eta denok ongi ezagutzen genuen lauza hartara hurbildu ziren, guretzat ere ezaguna zen arranodun bandera gorri horia eta erramu lorezko koroa bat eskuetan zeramatela.

Berehala ohartu ginen hura ez zela hain ohituta geunden onespenean bisita horietariko bat. Mailuz eta trintxaz lauza ireki... Eta halabeharrez, gizaseme hura bere betiko atsedenerako aukeratuta zeukan lekutik aterako zuten. Hura ironia hura... Espainiako patua indarrez gidatu zuenaren atsedena asalda zezakeenik ez zegoen oraindano eta bat-batean hil ohe hura ireki eta geratzen zen hezur pila hura ateratzearekin batera bere betiko loa etengo zen ezinbestean...

Egur finezko zerraldoa, metalezko txorian sartu eta aireratu zenean, bere barnetik birao ozen bat entzun zela diote, esnatu berri zen gizaseme haren haserretutako arima omen zen.

1939

Txiki txikitatik izan nahi nuen mediku, nire aita bezalako medikua,... bere kontsultategian ume nahiz adindun biltzen zituena, katarroak nahiz kakalarriak sendatzen edota inon konta ezin diren arazotxoak isilean ebazten zituena. Handiusterik gabe, naturaltasunez eta ordainean ezer espero gabe, estatuak emandako soldata eta berogailurik gabeko etxe bat soilik... mediku, medikua. Baina gerrateak bata zuria, galtza eta alkandora orlegi zakar batengatik aldatu zuen eta estetoskopioa ia eraman ezina zen mosketoi bategatik. Aita gerrara joateko edadetua izanik anaia eta biok erreklutatu gintuzten.

Keak eta bonbak inguratzen gintuen trintxeran nire egunak bukatzen ari zitzaizkidala sentitzen nuen noiznahi, eta amarru hilgarri batean sartarazi gintuzten egun hartan, nire azken arnasa gertu zegoela ziur nengoen... Eta halaxe izan zen...

Min gehien sortarazi zidan bala-tiroak sabelaldean jo ninduen eta bigarrenak ... nire kopeta aurkitu zuenak, akabatu. Ilunpetan barrena, betierekotzat jotzen nuen loaldian murgildu nintzen. Halabeharrez...

1960

Nire atsedean leku den hau hilobi komun bat da eta, bertan anaien arteko gerrate hartan parte hartu genuen heroiak omen gaude... Ilargi beteko gauetan apenas lo egiten dugu izan ere zenbaitek beren herriko abestiak kantatzeari ekiten dio, festaz, nahiz gudaz hitz egiten duten abestiak dira... benetan politak.

Apezpikuen hilobi diren marmolezko hilarririk ere badago. Bai eta bostehun bat horma hilobi ere... Nik han egotea nahiago nuke, baina ni hona ekartzerako jadanik beteta zeuden.

Kapera erdian beste hilobi bat ere badago, berezia da, harri beltz distiratsuz eraikia, hutsik dago oraindik baina, gizaseme garrantzitsu batek okupa dezan zain dago

Orain urtebete hogeita hamar kamioneten laguntzaz, erori ginen gudu zelai hartako hilobitik bailara honetara garraiatu gintuzten, latoizko kaxa batean bilduta. Ez nago ziur hezurdura osoa nirea ote den, baina kaxa hartan aitek oparitu zidan erlojua ere agertu zen eta... tira.

Hilobi honetan ausaz pilatu zituzten latoizko kaxak eta gero granitozko harri erraldoiaz estali zuten, inoiz inork ireki nahi izango ez balu bezala.

2020

Egun hartan gertatutakoa 2019an gertatutako haren antzekoa eta desberdina izan zen aldi berean... Burrumba ezberdineko gertakari bera alegia.

PROSA

Abadeak ez zekarren itzal dirudun eta dotorez osatutako segiziorik; ez zen kapel eta kaparik ikusten eta ez zen, inolaz ere, mundua euren balitz zapaltzen duen oinetako garestirik entzuten bidean. Jende xumea zen abadeari jarriki bidetik zetorrena. Gizon bizardun xume bat ere bazen haien artean.

Pauso batzuk haratago abadearen atzetik 3 emakume ageri ziren. Gazteena zirudienak adinduenaren besoari heltzen zion .

Abadeak zimurdun eskuetan zuen latoizko kutxa hura emakume zaharrenaren eskuetara pasa zen. Ordurarte ahulak iruditutako zitaizkidan bere eskuek indarrez eutsi zioten latoizko kutxa hari eta bihotzera hurbildu zuen.

“ Azkenean, aita... azkenean...”

Une horretan Joxe Antonio Uriarteren azken irudia ikusi ahal izan genuen, pozik zegoen irrifartsu. Piskanaka, piskanaka argi disdiratsu batek inguratu eta zerura bidean desagertu zen...

Hirurogei bat urte darama nire arimak libre, zerbaiten edo norbaiten zain. Nire arimari betiereko atsedena emango ote dion norbait edo zerbaiten zain.

Hogeita hamar mila gorputz daude hilobiraturik harri hauen azpian eta milaka arima askatasunaren irrikaz han eta hemenka gabilta. Apenas gogoratzen dut amaren aurpegi goxoa, eta aitaren imajina lausotzen hasia da. Gutako inork ez zuen leku hau bere atsedenaldirako aukeratu, baina hemen hilobiratu gintuzten zabarkeriaz. Gure familiek senarra, anaia edota semea gerratean galdu zutela badakite baina, inork ez die gorputzik bueltatu eta beraz, urtez urte oroimen bati negar egiten diote.

Gure aberriko lurak ez dira oraingoz nahastuko, latoizko kutxetan gordetako gure hezurrek bertan lekua aurki dezaten. Ordurarte, hezur eta arimak gara eta izango gara. Gorputzik gabeko hezurak eta atsedetik gabeko arimak.